

infraganti

DANI FANO

Buruan pizten zaizkion istorioek margo poteekin zein bitarteko digitalekin hartzen dute forma. Komikigilea da Dani Fano eta ia hamarkada bat darama «Xabiroi» komiki aldizkari koordinatzaile gisa. Genero txikitzat jotzen den komikigintzaren ateak zabaldu dizkigu eta fantasiaren edota oroimen historikoaren bideak ibili ditugu eskutik hartuta.

U lertua izateko obsesioak zirikatuta, marra garbiekin azaltzen ditu burmuinean pizten zaizkion istorioak. Komikigilea da Dani Fano. Hala aurkeztu nahiko luke bere burua bederen. Komikigintzatik bizitzea ia ezinezko den honetan, baina, ilustratzaile etiketarekin konformatu behar izaten du gehienetan.

Praktikak egin du komikigile. Bere belaunaldiko marrazkilari gehien antzera, gainera, eskuzko marrazketatik digitalera doan bidea bizkor ibili behar izan du. Birziklatze horretan abila izan da Fano eta arkatzarekin edo tableta grafikoarekin antzera moldatzen da egun. Hori bai, lan kutunen bat eskuarte badi, arkatza, borragoma eta tenperekin mimatzen ditu detaile guztiak. Hala, bere-berea izanen da erditzen duen komikia.

Arte Ederretako ikasketak orokorregiak iritzita, hezkuntza fisikoaren eta kirolaren alde egin zuen gaztetan. Marrazteko zale-tasuna, baina, beti izan du lagun, eta, urteen poderioz, ilustrazioaren eta kirolaren arteko lehian lehena ateratzen garaile.

Haurtzarora arkatza eta margo artean igaro zuen Fanok. Bere eskuetara iristen ziren irudiak kopiaatzeko ohitura zuen, bai eta eskolako apunteak komiki formatuan hartzeko ere. Argi du amari zor diola komikigintzarako zale-tasuna: «Ume gehien

antzera gustuko nituen ‘Asterix eta Obelix’, ‘Mortadelo y Filemón’ edota ‘Tintin’ moduko komikiak. Oraindik nerabe nintzela, baina, amak ‘Vértigo’ eta ‘Epic’ aldizkariak ekarri zizkidan eta mundu berri bat ireki zen nire aurrean».

Amak emandako urrats hura bihotzez eskertzen du Fanok, izan ere, harengatik ez balitz, ume gehien antzera, etenda ikusiko luke komikien iturria. Jakin badaki, gainera, amaren tzat erabaki hura ez zela samurra izango: «Helduentzako ziren



komiki horiek eta ni oraindik ez nintzen heldua. Sexua ere ageritzen, finean, nerabe batek bilatzen zituen gaiak zeuden bertan, estetika berezia...».

Fanok 90eko hamarkadaren akaberan ekin zion bere ibilbide profesionalari. Ikastolen Elkartearen eskutik eman zituen ilustratzaile gisako lehen pausuak eta haur askoren hezkuntzan bidela-gun izan diren Ttantomto, Txirritx eta Xango koloreztatzen igaro zituen laneko lehen egunak.

Komikigintzari, bere arte prezatuari, geroago heldu zion, eta,

memoriak huts egiten ez badio, “Mutxo” pilota aldizkarian argitaratu zuen bere lehen komiki tira. Ondoren etorri ziren “Ipurbeltz”, “Elhuyar”, “Ardi Beltza” edota “Kale Gorria” moduko aldizkarietako kolaborazioak.

Ilustrazioaren alor bakarretik bizi ahal izatea zaila da. Are nekezagoa, gainera, arlo hori komikigintza bada. Fano, baina, zorionekoa sentitzen da: azken hamarkadan bere lanaldiaren tarte handiena binetei eskaintzeko aukera izan du. «Ez dakit zein planeta konjuntzioa eman zen», hasi zaigu kontatzen “Xabiroi” komiki aldizkariaren koordinatzaile izateko eskaintza nola iritsi zitzaion azaldu asmoz.

2005. urtean eskaini zion Ikastolen Elkarteari komiki aldizkaria argitaratzeko aukera eta birritan pentsatu gabe eman zuen pausua. Haren iritziz, gainera, genero txikitzat jotzen den komigintza piztuta mantentzeko nahitaezko tresna dira aldizkariak. «Jarraikortasuna hil ala bizikoa da komigintzan –hasi zaigu azaltzen–. Argitaletxe esanguratsuek komikiak maiztasun jakin batean argitaratzen ez badituzte, aldizkariaren premia izugarria bilakatzen da».

Euskal komikigintzari urtero hiru ale eta bilduma bat eskaintzeaz gainera, komikigileen amarauna osatu du “Xabiroi” aldizkariak. Izan ere, aldizkaria sortu arte norbera bere etxean, sakabanatuta, aritzen ziren marrazkilariak saretu ditu. Guztira 30 komikigile inguruk egiten

Dani Fano, Donostiako Amara auzoan bizi da. Etxean bertan du estudioa.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

